

## ➤ **FUNTSEZKO JARDUERAK**

Gure enpresak funtziona dezan hurrengoko funtsezko-jarduerak burutu eta garatuko ditugu.

### **1. Ekoizpena**

Gure funtsezko jarduera ekoizpena da, hau da, manufaktura-enpresa bat garelako, ekoizteko eta entregatzeko betekizunak dituen.

### **2. Diseinua**

Gure produktuek diseinu polit eta neutroa izango dute, bezero-talde zabala dugulako, adin eta gustuetan anitza dena.

### **3. Produktuen garraioa eta helaraztea**

Gure produktuak salduko diren dendetara heltzeaz arduratuko gara, hornikuntza-erreak errespetatuz eta eraztunen kalitatea garraioan ez hondatzeko kargua hartuz.

### **4. Plataformak: web-a eta sareen jarduera**

Salmentak web orriaren bidez ere kudeatuko ditugu, produktua eskuratzeko erraztasuna bermatuz. Sareetan gure produktuak irudi korporatibo egokia edukitzea ere gure funtzioa izango da. webgunea eta on line denda kudeatzeko, mantentzeko eta sustatzeko jarduera ere. Webgunearen kudeaketa izango da taldekide guztien eginkizuna eta guztion artean sortuko dugu web egokia gure produktua ezagutzera emateko eta online erosteko aukera emateko.

### **5. Publizitatea**

Salmentak sustatzeko eraztunaren publizitatea egingo dugu, sareetan jarraitzaile asko dituzten eta ikasle diren eduki sortzaileen irudia aprobetxatuz.

### **6. Arazoen konponketa**

Gure lantaldeak enpresa barruko (lankideen arteko harremanak...) zein kanpoko (hornitzaileak, dendak, lehia...) arazoak konpontzeko gai izango da. Astean behin bilera orokorra egingo da, zeinetan, edozein arazoren berri emango da, arazoari aurre egiteko plan bat garatuz, ahalik eta azkarren konponbide bat bilatzeko.

